

Iruñan, Kanpion jaunaren etxean, 1934 - ko Oñilaren 22 - an.

Iruñan, Kanpion jaunaren etxean, bildurik gaude: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Eguskitza, Altube, Intza, Olabide, Elissalde, Intzagarai ta urgazletatik Ormaetxea eta Gorostiaga jaunak. Otoitz egin da.

I.— Iztegi beñiaren lanetan jardun degu. Altube jaunak oarpide batzuek dakarzki ta Garostiaga jaunari adierazten dizkio, jaun onek artu bai - du, bere bizkar, Iztegiaren azkeneko lan abek atontzea.

Altubek eta Gorostiagak itz egin digute luzaro ta ekañi dituzten irixpideak ontzat artu ditu Euskaltzaindiak.

II.— Lan abek bukatuta, Iztegia betetzeko itz-beñi biñe jardun degu ta batzuek autatu ta ontzat eman.

III.— Olabide jaunak, Arantzazutik ekañi digu Aita Basaberen txosten bat, Añibaño zanaren esku - idazki bat bide. Euskaltzaindiak gogoz entzun du. A. Basaberen txosten auxe gure EUSKERA-N argitaratuko da.

IV.— Azkue jaunak bere *Gipuzkera osotua* irakuñi digu. Ta beste gai batzuek uringo egunerako utzi dira, batzaraldia otoitzez bukatu rik.

Iruñan, Kanpion jaunaren etxean, 1934 - ko Oñilaren 23 - an.

Euskalzain auek bildu gera: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde, Intzagarai ta urgazletatik Ormaetxea, Gorostiaga eta Irigarai Angel. Otoitz egin da.

I.— Eguskitza jaunak bere lan bat irakuñi digu: Leizaraga, Lardizabal eta Etxeparen liburuetatik eus-